

berbarotarra



Euskararen erabilera gaztetuz doa

Ahazu barik

Uda honetan Berbarotarra bat Venezuelaraino joan da. Han dagoela hondartzan etzanda egoitea denbora galtzea dela eta, bertako biztanleekaz hitzegin, herri-tarren egoera ezagutu eta ikusitakoa besteok ere ikusi dezagun argazki mordoa egin zituen. AZAROAren 16an aukera paregabea izango dugu berak jasotako esperientzia eta argazkiekaz gozatzeko.

ABENDUAren 9ko iluntzean MIKEL URDANGARIN izango dugu San Agustin kultur gunean. Bere disko barria aurkeztuko digu bertan. Ekitaldiaren antolatzaileak Gaztelupeko Hotsak disketxea eta Berbaro izango dira. Arin ibili, 320 jazarleku baino ez daude eta.




Aurten ere, ABENDUAren 30ean bertso saio ikusgarria izango dugu San Agustinen.

Ale honetan

- Euskararen erabilera neurtu dugu Durangon
- di-da berbaron proiektu barria.
- Iritzia: Gorka Barruetabeña
- Datozenak
- Lau berbatan

ADIN TALDEKO BILAKAERA DURANGON (%)



1995ean Berbarok Durangon eginiko kale-neurketaren arabera, euskararen erabilaren proportzioa %12,06 zen. Bost urte beranduago, 2000.ean, euskararen erabilera %16,62koa da. EKBren 1997ko neurketaren arabera EHko batz bestekoa %13koa da. Gaur Durangoko kaleetan orain dela bost urte baino euskera gehiago berba egiten dela dio Ohiana Pagai soziologoak 2000.eko ekainaren lehenengo egunetan eginiko euskararen erabilaren kale neurketak. Biztanlegoa lau adin-taldetan banatu da: haurrak (0-14), gazteak (14-25), helduak (25-64) eta zaharrak (65etik gora).

1995.eko kale neurketako datuek erakusten zuten Durangon euskera gehien erabiltzen zutenak haurrak zirela, ondoren zaharrak, helduak eta gazteak azkenik. Aurten

ordea, malda honen lehenengo aldaketa helduen artean eman da, lortutako erabilaren kurba honela geratzen delarik: haurrak, zaharrak, gazteak eta helduak. Haurren erabilera %26,53koa da, gazteena %16,73koa, helduena %12,47koa eta adinekoena %16,94koa.

1995ean eginiko neurketa eta 2000.ean egin-dako neurketa alderatzerakotan, adin talde guztietan, bost urteko epean, erabilera tasak goruntz egin duela esan genezake. Haurrengan 7 puntutan igo da erabilera tasa, gazteengan erabilaren proportzioa bikoiztu egin da, eta adinekoen eta helduen erabilera tasa 3 puntutan igo da. Gainera, gazteena euskera gutxien erabiltzen zuen taldea izatetik, helduek baino gehiago erabiltzera igaro da. Durangon euskararen erabile-

ra gaztetzen ari dela esan daiteke.

Euskararen erabilaren bilakaera positiboa bada ere, hazkunde erritmoa motel-duz ei doa. Hau da, 1989.ean eta 1997.ean (EKBren neurketa) baino gehiago berba egiten da euskeraz, baina 1989tik 1997ra hazkunde handiagoa izan zen 2000rakoa baino. Ezagutzak erabilera baldintzatzen duela jakinik, Durangon euskararen ezagutza %44, 25ekoa izanik, herritar gehienek beste euskaldun batekin topo egitean erderara jotzeko joera dute. Datuek diotenez, 25-64 adin tarte horretan ematen da euskararen erabilaren galera itzela. Talde honek azaltzen ditu familia bidez egiten den hizkuntz transmisioaren emaitzarik txarrenak.

Emaitzetatik ondorioztatzen dugu Durangon euskera gehiago erabiltzen dela orain bost edo hamar urte baino, baina era berean, durangarrok etxean kalean baino gehiago erabiltzen jarraitzen dugu gure hizkuntza. Beraz, zeregina badugu oraindik durangarrok, horretan gabiltzan elkarrekin eta gure diruak kudeatzen dituzten erakundeek. Animo!

Iturria: Euskararen Erabilaren Kale-Neurketa Durangon 2000.



Gorka
Barruetabeña

1990ko urtean hasi zan batzen gure kultur taldea, Berbaroko elkarte ezaguna egingo eben ekin-tzatxoak antolatzeko. Zienta bat bider jarriko genduan mikroa kantari baten mustu-rreran, edo bertsolari batenean, edo hizlari batenean. Kurutzia zinean, jubila-tuenean, edo ikastolan, edo Pinondo Etxean. Urte batzuk pasatu eta taber-na eskuratu genduanen eskaintza handitu egin gen-duan, hileroko kultur progra-mazioa egitea lortu, hileroko esku programatxoaz etab.. Egia dan arren lekuak berak derrigortu egin euskula batez be gazteentzako kultur eskaintza egitera. Orain oster mende aldaketa batek eskatzen dauan neurri-ko apostua egitea pentsatu dogu Santa Ana bueltan ibil-tzea gustoko dogunok. Gaur eguneko baina eskain-tza zabalagoa eskaini gura deutsegu Durangarrei. Kultur eskaintza zabal batek eska-tzen dauan kultur gune egoki batean. Gure proiektu barria, **KAFE ANTZOKIA** Zaprorentzako batzuetan, gazteentzako besteetan, hel-duentzako, nagusiagoentzako eta tarteko eta aparteko guz-tientzako izatea gura dogu. Bale, hori danoi ondo dago, baina noizko demonio zabalduko da 99. Urterako zan Antzoki hori? 2001. **Urteko udazkenean egingo dogu inaugurazio ekitaldia.**

di-da: beste proiektu bat martxan

Helburu nagusia euskeraz kalitatezko zerbitzua eskaintzea eta lanpostu euskaldunak sortzea da

di-da diseinu, itzulpen eta komunikazio zerbitzua martxan jartzeko zela aipatu genuen aurreko Berbarotarraren ale batean. Otsailetik martxan badago ere, ekainaren 18an egin zen aurkezpen ofiziala, aste horretan zabaldu zituelarik bere ateak Berbaroren tabernaren ondoan dagoen lokalak. **di-da** Berbarok, Elorrioko SORMEN diseinu enpresarekin batera bultzatu-riko proiektu bat da.

Berbarok urteetan izan duen itzulpen zerbitzuarekin aurrerapausu bat emateko asmoa aspaldikoa zen. Beste alde batetik, kartelgintza, publizitate eta abarretatik harremana estua zen azkeneko urteetan Elorrioko SORMEN diseinu enpresarekin. Asmoak berak zirenez alde bietan, Berbarok proiektu orokor bat jarri zuen mahai gainean eta horren ondorio da **di-da**. Helburu nagusia euskeraz kalitatezko zerbitzua eskaintzea da, lanpostu euskaldunak sortzea eta, era berean, gure hizkuntzak merkatuan toki duinagoa lortzea.

di-da, Elorrioko Sormen eta Berbarok alkarrekin martxan jarritako proiektubarria da; diseinu, itzulpen eta komunikazio zerbitzu profesionala eskainiko duena

di-daren sorrera ahalegin handia izan da Berbarorentzat baina emaitzek dagoeneko adierazten dute ez dela pausu okerra izan. Itzulpen alorrean Berbaroren zerbitzuak zituen bezeroak mantentzeaz gain, Durangaldeko mugak gainditu eta Euskal Herri mailako argitaletxeentzako eskola-materiala itzuli da, umeek euskera lantzeko software didaktiko bat itzuli eta egokitu informatika alorreko enpresa batentzako: besteak beste. Gaztelera-eus-

kera ohiko itzulpen lanez gainera, frantse-sa, ingelesa eta alemanera ere egiten ditu lanak **di-daren** itzulpen alorrak.



Diseinuari dagokionez, Gotzon Garaizabal arduradunak dioenez “urte emankorra izan da”. Ikazoka, Kilometroak 00, Fray Juan de Zumarraga institutuaren irudi korporatiboa eta beste hainbat lan daude **di-dak** eginikoen artean. “Sortu dugun taldeak posible egiten du diseinuaz gainera, kasurako, kilometroak bezalako kanpaina bat goitik behera geuk diseina-tzea, testu, irudi eta telebistako spotak barne” gaineratu du Garaizabelek. Uneotan **di-dan**, hiru diseinatzaile, itzultzaile bat eta komertzial bat ari dira lanean, hainbat kolaboratzaileekin batera. “Komertzialaren lana oso garrantzitsua da, merkatutik datorkigunarekin ezin garelako konformatu, bila joan beharra dagoelako”.

Santa Ana plaza 6 da helbidea eta 946810261 telefonoa. Inongo beharrik baduzu han aurkituko duzu kalitatezko zerbitzu profesionala, lanak euskeraz ganoraz eta **di-da** egiten dituen.

Telebista

Zer da, baina, Anboto telebista? Zer ete darabilte buruan orain-goan hauek mendi bat telebisi-ño bihurtu gura izateko? Nortzuk izan ete dute horretan sartzeko pentsamentua? Lortuko dute? Zelan? Nozko? Hona hemen gaur gaurkoz eman ditzakegun erantzunak. Buruan darabilguna euskerak etorkizuneko gizarteari erantzuteko izango dituen arazoen gaineko kezka da ezer baino lehenago, eta arazo horieri aurre egiteko gure hizkuntza gaitzea bigarrenik. Informazioaren eta komunikabideen munduan bizi garela esatea ez da barria, eta gizarte honetan euskerak gero eta aurkari indartsu eta ugariagotzat egingo du topo, telebista kate mordoa hasteko, eta hortik Durangaldeko Merinalderako herri telebista bat sortzeko egitasmoa: Anboto Telebista. Euskeraz egingo duen talde batek euskeraz egingo duen egitasmoa. Euskerari arnasa barri eta modernoa emateko tresna eta euskeraz bizi ahal izateko pizgarri bat gehiago. Zaldibar, Elorrio, Iurreta eta Durangoko euskera taldeak eta ERAZ argitaratzen duen Durangaldeko Herri Komunikabideak elkarte dira proiektu



honen bultzatzaileak baina dela kirol talde, elkarte, enpresa, ikastetxe edo bestelako herriko agente guztiak inplikatu eta proiektuaren partaide izatea gura da. Bertako hizkuntzan, bertako jendeagaz eta bertako jendearentzako telebista izango dena lortzea delako helburua, unibertsalago egingo gaituen mundu globalizatuak uniforme, danok bardin-bardin, egin ez gaitzan. Gaur egun nahi beste kanal dauzkagu hautatzeko, baina bakarria euskera aukeratzeko. Elebitasuna guzuz moztortua da beste ezer baino gehiago, eta ezer baino egiazkoagoa den desoreka hori ahal dugun neurrian orekatzea gure egitekoa da. Anboto Telebista, gaur euskeraz daukagun kanal bakarra-

ren osagarri izango litzateke, eskualdeko herriaren esparrua hartuko duen euskal komunikabideak sortzea beharrezkoa da-eta. Bertako gaiak joratzeko eta batez ere bertako hizkera bizia, bizkaiera, lantzeko. Herri telebistak badu ETB-ri zer eskeini eta ETB-k ere bai herri telebistari, alkarren osagarri, euskerazko audiobisualen sare indartsu eta bizia eratzeke. Anboto Telebista Izurtza, Mañaria, Otxandio, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Berriz, Zaldibar, Durango, Iurreta eta Garain ikusiko delakoan gaude, baina neurri honetako eta euskerazko komunikabide bat martxan ipintzeko Durangaldeko udalen aldetik beharko dugun babesia izango dugun, hori, ikusteko dago.



Aitor
Uriarte

Gazteen artean bost urte pasatu dira niretzako konturatu gabe. Urteetako lanaren balantzea egiteari ere beldurra apur bat jadanik, arlo honetan izandako gorabehera guztiekin, belaunaldi barrien aldaketa, eta abarrek, gauza polit asko, ezuste batzuk eta nekeak ere eman dituelako.

Baina elkarte guztien antzera, sorreratik amaren eskutik egindako bidean pausu batzuk eman dira. Liberatu eta militanteen arteko elkarlanean, egitura propioa sortzen ahalegindu gara, momentuko inertiak eta norberaren lehentasunetatik bultzatuta lanean jarri gaituelarik jo ta su. Batzutan lanaren etekina neurtzen zaila izan da, gazte arlotik jende ezberdina pasatu da eta interes eta gogo ezberdinak bildu dira. Gazte batzordeak ez ditu guztiz bereganatu euskara elkarte baten gazte esparruko lanak egitura sendo batez aurrera eramateko.

Gazte arloan eten txiki bat egin nahi dugu Berbarotik, egindako lanaren berrikuspen bat eta lan ildoen berplanteamendu edo balantzea egiteko. Egituran eta lanaren lehentasunetan erreflexio bat egiteko asmoa dago esparru honetan inplikaturik dagoen jendearekin, egon direnekin eta elkartetik parte hartzeko prest dauden guztiekin.


Guazen Ba! taldeak ikastaroa antolatu du 18 urtez gorakoentzat euskerazko formazioa egin eta begirale titulu ofiziala jasotzeko.

Aisialdia euskeraz bizitzeko asmoan eta ahaleginean aurrera, begiraleen formazioa euskeraz egiteko apustua egin du Guazen Ba! taldeak. Azken kurtsoan aurrera eraman diren ekintzen balantze ona pizgarri da gerorako, eta horretarako formazio egokia eta euskarazkoa izango duten begiraleak beharko batira.

Horretarako, bi urtetan gauzatuko den ikastaroa jarri berri du abian. Osotara 204 ordu teoriko eta 120 praktiko burutuko dira ikastaroan, eta berau burutzen duenak Eusko Jaurlaritzaren titulu ofiziala jasoko du. Hau dena, Durangoko IMDAC Mikeldi GEKUI-rekin elkarlanean burutuko da eta Urtxintxa Eskolak emango du.

Guazen Ba! taldeak udaleku gainontzeko aisialdi ekintzen eskeintza urtetik urtera ugalduta hobetzen du, eta hau beste pausu bat da orain arte ondo ibilitako bidean, lagun gehiago eta bizkorrago joateko. Aurten gainera, Iraide Arriolabengoak hartuko du urte osoko aisialdi eta udalekuak dinamizatzeko ardura. Geldirik egoterik ez dago, antza. Guazen ba!

**Guezan
Ba!
aurrera doa**



Datozenak

Azaroaren 1etik 15era,
bitartean **Donostiako Jazzaldiaren**
argazki erakusketa izango dugu ikus-
gai tabernan.

Azaroaren 2an,
Petti musikariak kontzertua eskainiko
du Berbaro tabernan iluntzeko 9etan
hasita.


Azaroaren 16an,
Berbaroko bazkidea den Aitor
Sarrionandiak **Venezuelako**
diapositiba emanaldia eskainiko
deusku. Tartean azalpenen bat ere
emango ei du.

Azaroaren 30ean,
hori ere iluntzeko 9etan hasita
MORAU kantariaren azkeneko
diskoko kantuak entzuteko aukera
izango dugu.

Abenduaren 9an,
MIKEL URDANGARIN izango dogu
San Agustinen
iluntzeko 9etan. Sarrera 1000pzta
izango da eta Berbaro Tabernan
izango duzue salgai.

Lau berbatan

- Barri bat baino gehiago entzun eta irakurri ditugu azken aldion Euskal Nortasun Agiriaren gainean. Zurea egin gura izanez gero Berbaro elkartearen bulegotik pasatzea baino ez daukazula gogoratu gura dizugu. Beste barik!
- Ongi etorri bi egiteko moduan gara Durangon euskeraren alde lanean gaudenok. Durangoko Euskal Herrian Euskaraz-i batetik, irailaren 28an aurkeztu zelako Pinondo Etxean, eta Bizkaiko Bertsozale Elkarteari bestetik, inauguratu berri duelako Durangoko erosi duen egoitza.
- Discinatzaile, informatikari edo bestela asteburuetan tabernari izango zinatekeela inoiz bururatu bazaizu, Berbaroren bulegotik pasatu edo 94 620 19 18 telefonora deitzea daukazu, behar dira-eta.
- Konturatuko zineten Eraz sendotxoago heldu dela irailetik aurrera. 20 orrialdetik 24ra egin du salto. Urteak igaro badira ere, behingoz, tresneria profesionalarekin egingo dute lan. Zorionak!
- Eraz gabonetako loteria salgai dauka aurtien ere. 27.881 zenbakiak saritua izateko aukera handiak ditu. Badakizu!



*Berbarok
dinamizatzen duen
Durangoko Udala eta
dendari eta elkarteen
arteko hitzarmenak
aurrera jarraitzen du
eta zeregin hori
betetzeko ardura
Rakel Odiagak
hartu du bere gain.*

